

## Txoriak.mp3

*Txoriak* izeneko proiektuaren ideia estankoetan tabakoa saltzeko kutxa batzuetatik sortu zen. Kutxa horiek biltegi batean zokoratuta zeuden, eta kaxa horiekin txoriek eta hegaztiak babes hartzeko habia-kutxak egitea bururatu zitzairen Kursaal Green-eko kideei.

Egitasmo honek hiru helburu biltzen ditu: hegaztientzat bizileku izateko elementu bat birgaitzea, ikastetxeetako ikasleen artean hegaztiei buruzko ezagueraren transmisioa egitea eta bioaniztasuna areagotzea, ingurune naturalean eginiko esku-hartzeari esker.

Ulia Interpretazio Zentroan emango den tailer baten bidez, Lehen Hezkuntzako ikasleek bertako hegazti arruntenak ezagutuko dituzte, baita haien habitatari buruzko ezaugarri interesgarrienak ere, eta hegaztiak bereizten ere ikasiko dute. Horretarako, ikasleek material didaktikoa eskuratuko dute: hegazti arruntenak bereizteko posterra, habia-kutxa jartzeko eta zaintzeko hainbat aholku eta jarraipen-fitxak emango zaizkie.

Halaber, talde bakoitzak habia-kutxa bat eramango du bere ikastetxearen inguruetan kokatzeko. Habia-kutxa toki ikusgai batean kokatu beharko dute, zein espeziek eta urteko zein garaitan erabiltzen duen jakiteko eta jarraipena egiteko.